

TESTU



Ainhoa Alkain Aiestaran
(Donostia)

Itzultzailea lanbidez, mendian lagun artean ibiltzea atsegin du. Fortuna KEko lagunekin Euskal Herrian eta Pirinioetan ibili ohi da.

MIDI D'OSSAU PEYREGETEKO ERLAI TZETIK

Aurtengo udan, Midi d'Ossau mendiak eskaintzen duen ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera izan dut lagun artean. Duela urte batzuk, 2013ko udan, zehazki, lehen aldiz igo genuen Midi d'Ossau, baina aldi hartan biderik klasikoena (Suzoneko lepotik hasten dena) aukeratu genuen gora egiteko (hain zuzen ere, oraingoan gure jaitsiera bertatik egin genuen); aurtan, berriz, Peyregeteko erlaitzetik egitea pentsatu dugu.

Mendi-irteera hau antolatzeke orduan, hainbat informazio-iturri erabili ditugu eta horiek kontuan hartuta, 7-10 ordu behar izango ditugula kalkulatu dugu, betiere inolako gorabeherarik gabe egitea lortzen badugu. Zailtasun teknikoari dagokionez, II-III mailako hainbat pausu gaingitu behar dira, baina gehiena harri artean katuka igotzean eta jaistean datza. Rappel eta tximinia pare bat ere pasa behar dira bidean. Bestalde, garrantzitsua da bertigorik ez edukitzea eta altueran ibiltzeari beldurrik ez izatea, zenbait zatitan behera begiratu eta ikusten den eroria beldurgarria baita. Azkenik, fisikoari helduta, ibilaldi luzeak egitera ohituta egotea eta eskaladako gutxieneko ezaguerak edukitzea komeni da.

Sei lagun elkartu ginen abuztuaren 13an Donostian, arratsaldeko 14:00ak inguru, Peyregeteko erlaitza egiteko erronka buruan gurelako. Materiala prestatu, furgoneta antolatu eta Portaleterantz (Formigal) abiatu ginen. Zehazkiago, Portaletoko muga pasa eta kilometro eskas batera dagoen Aneouko aparkalekura. Arratsaldeko 18:00etarako aparkalekuan geunden. Bakoitzak bere motxila gainean jarri eta Pombieko aterpera (2032 m) eramango gintuen bidea hartu genuen. Igoeran lainoa sartzen hasi zen eta nahikoa bustita iritsi ginen aterpera. Ordu eta erdi inguruko igoera da, ez gogorregia baina bai etengabea. Irteera antolatzen ari ginela aterpekoekin hitz egin genuenean esan ziguten, jada, afaltzeko eta gosaltzeko lekua gordeko zigutela, baina lo egiteko lekurik ez zutela. Gure lehen asmoa bibakeatzea zen, baina taldekide batek badaezpada denda batzuk eramatea proposatu zuen... baita asmatu ere! Izan ere, gaua hotza eta hezea izan zen. Horrenbestez, dendak aterpearen inguruan dauden "kanpaleku libreetako" batean jarri, afaldu eta lo egitera joan ginen.

Rappel eta tximinia pare bat pasa behar dira bidean

06:30ean esnatu ginen, gosalduta eta 07:30erako martxan geunden. Eguraldia ikusita, ezin genuen ziur jakin eguneko helburua betetzeko gai izango ote ginen. Laino handia zegoen, baina ater-



peko arduradunek esan zigutenez, litekeena zen altuera hartu ahala eguna argituz joatea eta lainoa behean geratzea. Eta halaxe izan zen. Horrenbestez, eguneko lehen helburuari heldu genion: Col de Peyreguet (2300 m).

Ez da bide zaila. Aterpetik irten eta GRa hartu behar da, Pombieko lakua eskuinera utzita. Aterpea eta Col de Peyreguet lotzen dituen bidean mugarri dezente dago, eta gora hasi eta gutxira, begien aurrean ikus daiteke lepoa beraz, galtzeko arriskua txikia da, lainorik ez badago, jakina. 40 minutu inguru behar izan genituen aterpetik lepora iristeko. 08:10erako Col de Peyregeten geunden. Gure ezkerrean (hegoaldean) Peyreget (2487 m) mendia dago (mendian ibiltzera ohituta bazaudete,

haurrekin eta familian igotzeko mendi polita da). Baina gure helburua eskuinera (iparraldean) dugu.

Petit Picen oinetara iritsi behar genuen lehenengo. Parean genuen zelaia diagonalean zeharkatzen hasi ginen, mendebalde derantz joz pixkanaka (80-100 m inguru). Jasota genuen informazioaren arabera, zelaiaren amaieran, gutxi gorabehera, mendiaren mendebaldeko aurpegira pasa behar ginen eta beste igoera baten ondoren lepo batera iritsiko ginen (lepo horretan mugarri bat dago). Lepora iritsi ginen, baita mugarria aurkitu ere, eta hortik aurrera beste zelai bat zeharkatu genuen, baina eskuinerantz oraingoan, eta arrakala batera iritsi ginen. Ez da bide zaila, baina bai aldapatsua. Arrakalan geundela kas-

Hodei guztien gainetik · ARGAZKIA: JON SAN SEBASTIAN





Midi d'Ossau · ARGAZKIA: JON SAN SEBASTIAN

koa eta arnesa jartzeko aprobeztatu genuen eta bikoteka antolatatu ginen. Zeharkaldi osoa binaka lotuta egin genuen.

Arrakalara iritsi eta gure aurrean Peyregeteko eskua ikus genezakeen

Aurrean harri soltez eta nahasiz osatutako pareta bat genuen. Hala ere, mugarri ugari ikus zitezkeen eta bideari ekin genion, bitan pentsatu gabe. Bide erdian harrizko piramide antzeko bat dago eta bertara zuzendu ginen. Ezkerraldetik gainditu eta gora jarraitu genuen, eskuineranzko joera hartuta, harrien artean bide bila, gora eta behera, korridore bat tartean, beste arrakala batera iritsi arte. Arrakalara iritsi eta gure aurrean Peyregeteko eskua ikus genezakeen.

Petit Picen oinera iristea zen gure hurrengo helburua. Bidearen amaieran tximinia bat igo behar dela irakurrita genuen, beraz, tximinia horretara iristeko bide egokiena bilatzen hasi ginen. Lehen esan dudan moduan, ibilbide osoan zehar mugarri ugari dago. Gainera, irteera prestatzeko erabilitako informazioa eta taldekide batzuen sena oso baliagarriak izan zitzaizkigun gure helburura hurbiltzeko. Horrenbestez, harri artean gora eginez eta giro politean Petit Picen oinera iritsi ginen. Motxilak bertan utzi eta gailurrerako bideari ekin genion.

10:30 Petit Pic (2807 m). Grand Pic (2884 m) bakarrik falta zitzaigun eguneko erronka gainditzeko. Petit Picetik jaitsi, motxilak hartu eta rappel baterantz abiatu ginen. Rappela egin eta la Fourche lepora zuzendu ginen eta pixka bat gora eginez bide osoko zatirik "zailenera" iritsiko ginen: plaka zuriak. La Fourche lepora hurbiltzen ari ginela, pare-parean genituen plaka zuriak. Ibilaldi osoko zatirik konplexuena hau dela entzunda genuen. Zati honetan harria oso etzana egoteaz gain, oso laua da. Hala ere, plakaren hasieran iltze bat dago eta pixka bat aurrerago zinta bat, aseguratzeko. Arazo handirik gabe lortu genuen plaka zuriak gainditzea (betiere kontuan hartuta lotuta egoteak ematen duen segurtasuna), eta ondoren, dagoen tximinia ere aise igo genuen. Tximiniatik atera eta gora berriro, harrizarren artetik bide bila, beste tximinia baten oinetara iritsi arte.

Egun osoan izan genuen lainoa gure azpian, gu eguzkitan eta bailara lainoetan

Oso gutxi falta zitzaigun Midi d'Ossaura iristeko eta azken aldapak gainditu eta gero, 13:30ean gailurrean geunden. Egun osoan izan genuen lainoa gure azpian, gu eguzkitan eta bailara lainoetan, eta mendiak ikuspegi ederrak eskaini zizkigun, are gehiago gailurrera iristean. Benetan ikusgarria. Denbora luzez egon ginen gailurrean, hamaiketako egin, materiala txukundu, motxilak prestatu, egonean egon... baina beherako bideari ekin behar genion berandu baino lehen.

Zenbait taldekidek ezagutzen genuen Pombieko aterpera eramango gintuen beherako bidea. 3 ordu inguru beharko genituen bertara iristeko eta hiru tximinia ere gogoratzen genituen. Lehen erreferentzia Portillón gurutzea zen. Zalantzak eduki genituen, izan ere, makina bat aukera daude leku berera iristeko, eskuinera-go joanda, ezkerrerago, zuzen eginda, baina azkenean iritsi ginen gurutzera. Aurrera jarraituta lehen tximiniara iritsi ginen. Rappelatzen jaitsi beharrean katuka jaitea erabaki genuen. Bigarren tximinian rappela antolatuta genuen jaisteko, baita hirugarrenean ere. Tximinia batetik besterako bidea ez da zaila, baina bai deseroso eta arreta handiz jaitsi beharrekoa. Azken rappelak Suzoneko lepoan utzi gintuen eta aterperako bideari ekin genion.

Aterpera iritsi ginenerako (17:00ak inguru) bailara osoa eguzkitan zegoen. Goizean aterpean utzitako gauzak jaso eta Portaletara jaisten hasi ginen. Oraindik Donostiarako bidea egin behar genuen, baina denboraz ongi genbiltzan, beraz, presarik gabe jaitsi ginen. Egun borobila izan zen, bai eguraldiari dagokionez, bai mendiak eskainitako baldintzei dagokienez, bai izandako konpainiari dagokionez.

Tximiniatik ateratzen · ARGAZKIA: ANA ITURRIZA



